



Ikaslearen koaderno

The background features a light green silhouette illustration of a community project. At the top, there are industrial smokestacks and a sun-like symbol. Below, a group of people are depicted in various activities: some are holding up a large banner, others are working on a table, and one person is using a megaphone. The overall scene suggests a collaborative effort in a community or educational setting.

KONFEKOOPek ikastetxeetan balio nahiz printzipio kooperatiboak sustatu eta garatzeko eta kultura ekintzailea bultzatzeko, material hau irakasle eta ikasleen eskura jartzen du, ikasle-koopertatibak sortzeko.

Proiektu honek **IKASLE-KOOPERATIBEN** sorrera sustatu nahi du, ikasleek ikasturtean zehar elkarlan prozesu bat burutuz. Horretarako, kooperatiba eratuko dute, estatutuen eta gobernu-organoen sorkuntzatik, eguneroko enpresa-bizitzako egoerak bizi eta horiek konpontzeraino. Sortuko duten enpresan plangintza desberdinak burutuko dituzte, marketinga, ekoizpena, giza baliabideen erabilera, finantziazioa, salmenta, lorpenak... Eta esperientzia honi esker ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista izan daitezke.

1. OSAGAIA

Zer dakigu?

» HAUTSAK HARROTZEN

Inoiz pentsatu al duzu helduaroan zer izan nahi duzun? Zein lanbide izatea nahiko zenukeen? Amesten al duzu zure etorkizunarekin? Zer eskaini nahiko zenioke gizarteari?

AMESTERA AUSARTZEN AL ZARA?

1 Amesteko baliagarri zaizu zure bizi esperientziak gogora ekartzea. Astindu burua eta erantzun ondoko galderak:

-
-
-



2 Abestu Huntza taldearen ondoko kanta elkarrekin eta jarraitu ondoren galderekin hausnartzen.

▶ <https://youtu.be/EA8E8jWkxX8>



-
-
-

SINISTU ZUGAN

3 Parteka itzazu aurreko erantzunak talde txikietan jarrita. Elkarrekin partekatuz zure burua eta bestee-na gehiago ezagutuko duzu.



Zure indarguneak beharrezkoak izango dira elkarrekin sortuko duzuen ikasle-kooperatibarako. Horregatik da garrantzitsua zure burua ahalik eta ondoen ezagutzea.

» GOAZEN HARIRA

Ikus ondoko bideoa.

<https://youtu.be/3D50hQqqBRA>



1 Ikasle-kooperatiba:

-
-
-
-
-



2 Ondoko kooperatibak ezagutzen al dituzu? Zer dakizu horiei buruz? Kooperatiba batean lan egiten duen ezagunik baduzu, jar zaitez harremanetan berarekin eta galde iezaiozu zer den eta nola funtzionatzen duen kooperatiba batek.

 **ULMA**

Orona 

LABORAL 
kutxa

 **SANTO TOMAS
LIZEOA**

 **arizmendi
ikastola**

 **MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

 **Kaiku**

 **EROSKI**

 **ORBEA**

 **IRIZAR**

3 Goiener kooperatibaren inguruko bideoa ikusi ondoren, erantzun galderak bakarka.

<https://youtu.be/k3VQtqPp0lk>



a)

b)

c)

d)

4 Gizarte enprendizaiari loturiko kooperatiba osatuko duzue. Baina aurretik, ekar ezazu iragana orainera: inoiz parte hartu al duzu gizarte lanean?

a)

b)

c)


Horiek izan daitezke aurrerago garrantuko duzuen ideia abiarazlea.

5 Gela osoak emango diozue erantzuna ondoko galderei:

a)

b)

c)



» KEZKAK ARGITZEN

ZER DA IKASLE-KOOPERATIBA?

▶ Ikus Mirene Arrik ematen dituen argibideak eta erantzun galderak.



- a) Zein dira kooperatibaren balioak? Zuen hitzetan azaldu zer esanahi duen bakoitzak. Horretarako lagungarri egingo zaizu bideoko azalpena.
- b) Balioak ikusgai jar ditzakezue gelan denon bistara.
- c) Eta gela osoak parte har dezake balioen inguruko partekatzean, eztabaidan, adibideen adierazpenean...

Gizartean gauza ugari egin daitezke gure bizimoduak hobetzeko eta elkarri laguntzeko. Gustatuko al litzaizuke zein premia dagoen aztertu eta hura eskainiko duen kooperatiba bat sortzea? Zu ere izan zaitezke gizartean eragile, arduradun eta ekintzaile!!

Elkar zaitezte eta zuen indarrak batuz, sor ezazue ikasle-kooperatiba bat, elkarrekin arituz, gizartea hobetzeko, zerbitzu ala produktu bat sortu eta eskainiz. Kooperatiba bat eraiki, erabakiak hartu, sortzaile izan eta ekintzailetza indartuko duzue desafio honetan. Horretarako, zuen inguruan zein premia dauden aztertuko duzue, zer eskaini dezakezuen eta nola eskaini ere bai. Horiek bideratzeko kooperatiba sortu eta lanean jarriko zarete. Amaieran, sortu duzuen zerbitzua ala produktuaren bidez eskuratutako etekinak jaso eta erabaki bezala bideratuko dituzue.

2. OSAGAIA

Sor ditzagun taldeak!

» HAUTSAK HARROTZEN

Taldean, parte-hartzea ahalik eta gehien ziurtatuz, eta elkarren arteko aldi-bereko interakzioa indartuz, elkarrekin lan egiten ikasi, elkarren proposamenak gehitu eta norberaren gaitasunak gorenera eramango dituzue.

1 Eskakizuna betetzeko lau taldeak osatuko ditugu. Lehenik taldeak eraikitzen eta antolatzen hasiko gara **koloreen dinamika** erabiliz. Dinamika horren bidez, taldeak ikasleen izaeraren araberak eraikiko dituzue.

- a) Ikasleek, lau koloretan sailkatutako ondoko adjektibo-zerrenda aztertuko duzue.
- b) Ikasle bakoitzak bere izaerari gehien hurbiltzen zaion kolorea hautatuko du.
- c) Ikasle bakoitzak bere izena eta kolorea idatziko ditu paper batean, eta baita gertu duen beste kolore bat ere.

KOLOREEN DINAMIKA

EGUN ONA	EGUN TXARRA
Zehatza	Ikuspegi itxikoa
Sistematikoa	Zekena
Jakinduria duena	Erretxina
Analitikoa	Aldaezina
Zentzuduna	Disoziatua
Saiatua	Hotza
Metodikoa	Fidekaitza
Neurtua	Kritikoa
Disziplinatua	Diplomazia gutxikoa
Egonkorra	Hunkibera

EGUN ONA	EGUN TXARRA
Ekintzailea	Menderatzailea
Objektiboa	Oldarkorra
Tinkoa	Intolerantea
Zorrotza	Harroa
Saiatua	Pazientzia gutxikoa
Helburuetara begira	Begirunerik gabea
Aktiboa, dinamikoa	Zakarra
Ordenatua	Eskrupulorik gabea
Erabakitzailea	Sasijakintsua
Lehiakorra	Kontrolatzailea

EGUN ONA	EGUN TXARRA
Fidagarria	Burugogorra
Adeitsua	Ernaia
Elkarbatzen du	Zalantzatia
Leiala	Aitzakiz betea
Arretatsua	Adosteko gai ez dena
Pazientziaduna	Barnekoia
Ulerkorra	Uzkurra
Lasaia	Etsigarria
Pentsakorra	Sentibera
Diskretoa	Isila

EGUN ONA	EGUN TXARRA
Sinesgarria	Oldarkorra
Hitz errazekoa	Oso urduria
Gogotsua	Frenetikoa, gogorra
Baikorra	Gehiegizkoa
Lagunkoia	Diskrezio gutxikoa
Dinamikoa	Nabarmena
Irekia	Zaratatsua, ozena
Sortzailea	Azalekoa
Bat-batekoa	Axolagabea
Burujabea	Ordenik gabea

2 Taldeak ahalik eta anitzenak izateko, profil desberdina duten pertsonekin osatu beharko duzue.

- Lau kolore desberdin dituzten ikasleekin osatutako taldeak egingo dira.
- Talde guztiak osatzea ezinezkoa bada, ikasleek hautatutako bigarren koloreen arabera osatuko dira.

3 Taldekideak elkar hobeto ezagutzeko eta talde kohesioa indartzeko **diana eta hituaren** dinamika egingo duzue.

- Taldeari zirkulu zentrokiadeak dituen diana bat emango zaie. Lau zatitan banatuko dute diana. Zati bakoitza taldeko kide bakoitzari egokituko zaio.


- Lerro bakoitzean, barrutik hasita, taldekide bakoitzak galdera hauek erantzungo ditu:

- Nire izena edota ezizena
- Nire hiru zaletasun
- Nire indarguneak
- Nire maniaren bat
- Nire amets bat

- Bost galderen erantzunak osatu ondoren, kanpoko zirkulu zentrokide osatzen hasiko dira. Horretarako, diana mugituko da. Norberari beste baten atala jarriko zaio parean. Dagokionari buruz atsegin duen zerbait idatziko du.

- Berriz mugituko da hitua, beste bati buruz atsegin dena idazteko.

- Hitua, hirugarren kideari buruz idazteko, berriz mugituko da.



Dianak taldeko ezaugarriak bilduko ditu eta lagungarria izango zaie talde izaera eta identitatea zehazteko, bai eta eraikiko duten ikasle-kooperatibarako ere.

» GOAZEN HARIRA

Taldeko kideen artean ardurak banatzen hasiko zarete.

4 Taldeak **Txirifolloa** izeneko dinamika egingo du. Horretarako, jarraitu ondoko pausoei:


a) Irakurri arretaz testua.

- Txirifolloa deituko diegu Din A6 tamainako orriei (folio laurdena). Erdetik tolestu, eta alde batean "X" eta bestean "0" idatziko dugu.
- Talde bakoitzak txirifolloak egin, eta biltegian utzi beharko ditu. Zeloarekin, talde bakoitzaren biltegia zein den markatuko dugu. Kontuan izan talde bakoitzak bere biltegiraino duen distantziak antzekoa izan behar duela.

TXIRIFOLLOA

Biltegia

Materiala



- Denbora irakasleak kudeatuko du.
- Denbora pasatzen denean, Kalitate-batzordeak (talde bakoitzeko kide bat) biltegian dauden txirifolloen kalitatea aztertu, eta kalitate-kontrola pasatzen ez dutenak baztertu beharko ditu. Biltegian egoki jarrita, hau da, zutik ez dauden txirifolloak ere ez dira zenbatuko.

1. TXANDA	• Talde bakoitzak 3 minutuan zenbat txirifollo egiteko eta biltegitratzeko gaitasuna duen zenbatetsi, eta arbelean idatzi behar du egindako aurreikuspena. Ondoren, aurreikuspen horren arabera materiala banatuko zaio talde bakoitzari. – Papera (egin kontu folio batekin 4 txirifollo egiten direla). – 2 guraize – 2 errotuladore
	• Talde bakoitzak 5 minutu izango ditu txirifolloak nola ekoitziko dituzten eta taldean nola antolatuko diren planifikatzeko.
	• Talde bakoitzak 3 minutu izango ditu lana egiteko.
	• Kalitate-batzordea elkartu, eta biltegiara joango da. Kalitate-kontrola pasatzen duten eta biltegian dauden txirifolloak bakarrik zenbatuko dira. Emaizak arbelean idatziko dira.

- b) Taldeak kalitatea zainduz eta modu eraginkorrean lan egiteko, ezinbestekoa izaten da **taldekideen ardurak** banatzea. Irakurri arretaz funtzioak, eta idatzi taldearen koadernoan nork beteko duen ardura bakoitza. Era berean, bakoitzaren ardura agerian jartzeko, sortu eta jarri dagokizun ardura azaltzen duen eranskailua.

Ardura betetzen duen TALDEKIDEAREN IZENA	ARDURA	ARDURARI DAGOZKION FUNTZIOAK
	Koordinatzailea ERRAZTASUNAK EMATEA / KOORDI- NATZEA Taldekide bakoitzak egin beharrekoa argi izateaz arduratuko da.	• Taldearen lana koordinatu. • Taldekideei egin beharrekoa azaldu. • Taldekideak animatu. • Taldekide bakoitzak bere funtzioak betetzeaz arduratu.
	Idazkaria SINTETIZATZEA Eztabaidatutako ideiak laburtu eta jasoko ditu.	• Eztabaidatutako ideiak taldearen koadernoan laburtu eta jaso. • Plangintzan zehazturikoa gogora ekarri, tarteka.
	Koordinatzailearen laguntzailea ZIURTATZEA Taldekide guztiek egin beharrekoa ulertzen dutela eta aurrera egiteko baldintzak betetzen direla ziurtatuko du.	• Denbora ez dela alferrik galtzen zaindu. • Gaiari buruz hitz egiten dela ziurtatu. • Taldeko koordinatzaileari lagundu.
	Bozeramailea BERRI EMATEA Sortu eta jasotakoaren berri emango du.	• Taldearen izenean hitz egin. • Txandak antolatu. • Elkarlana bultzatu. • Taldekideen tonua kontrolatu.

- c) Aurreko ardurak banatuta, taldekide bakoitzak praktikan jarriko dituzue ardurak eta funtzioak. Horretarako, berriz egingo duzue Txirifolloa izeneko dinamika. Ikus dezagun kalitatea eta eraginkortasuna hobetzen dituzuen!



2. eta 3. TXANDA	Talde bakoitzak beste saiakera bat antolatu eta planifikatuko du 5 minutuan, eta zenbat txirifolloa egingo dituen zenbatetsiko du.
	Talde bakoitzak beste 3 minutu izango ditu txirifolloak egiteko.

- 5 Egindako lanaren ondorioak taldean atera, **arkatzak erdira** egitura kooperatiboa aplikatuz.
- Aurretik arretaz irakurri arkatzak erdira prozedura.
 - Ondoren, talde handian azaldu beharko dituzue ateratako ondorioak. Azpiko irizpideetan oinarritu behar dituzue ondorioak:

ARKATZAK ERDIRA



Egitura honen bidez, entzute aktiboa lantzen da. Teknika aproposa da ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko, taldeko kohesioa lortzeko eta, aldi berean, egin beharreko ariketari etekina ateratzeko.

Ariketa honekin taldeko identitatea indartzen da, ezinbestean adostasuna lortu behar dutelako talde gisa, eta taldekide guztiek gauza bera idatzi behar dutelako koadernoan (horregatik jartzen dira arkatzak erdian, inork erantzunik idatz ez dezan harik eta denen artean erantzun bat adostu arte).

Urratsak:

- Irakasleak talde bakoitzari orri bat emango dio, oinarritzko taldeak dituen kideak beste galdera edo ariketa dituen. Ikasle bakoitzak galdera edo ariketa batez arduratu behar du.
- Ariketen ordena zehazten da. Lehen ariketa gidatu behar duen ikasleak ozen irakurriko du, eta galdera erantzuten hasiko da. Taldekide guztiek euren arkatzak mahaiaren erdian utzi-ko dituzte (horrela, bermatu egiten da ezin izango dutela ezer idatzi).

- Taldeko beste kideek beren erantzuna edo iritzia esango dute, erloju-orratzen noranzkoan.
- Ariketaren gidariak bermatu egingo du kide guztiek hitz egiten dutela.
- Adierazitako iritzi guztiak oinarri hartuta, eztabaida egingo dute, eta denen artean erabakiko dute zein den erantzun egokia.
- Ariketa gidatzen duenak uste duenean adostasunera heldu direla, mahaiaren erditik arkatzak hartzeko baimena emango du, eta adostutako hori idatziko dute.
- Gero, hurrengo ariketara pasatuko dira, eta prozesua errepikatuko dute, beste gidari batekin. Eta horrela ariketa guztiak egin arte.

-
-
-
-
-
-
-

» KEZKAK ARGITZEN

Sortu berri duzuen taldea gehiago ezagutu duzue eta kohesiorako dinamikak ere egin dituzue. Koka gaitezen proiektuaren desafioan eta azter dezagun zer eskatzen zaigun.

Ekintzialeak izanda, taldean gure indarguneak baliatuz eta kooperazioan arituz, zer eskain dezakegu gizartea hobetzeko?

6 Ikus aurreko osagaian duzuen desfioaren aurkezpen bideoa. Ondoren, identifika itzazue ezau-garriak. Horretarako lagungarri dituzue ondoko galderak:

- a)
- b)
- c)
- d)
- e)
- f)
- g)

Eskakizuna egiteko ebaluazioaren argibideak beharrezkoa izango dituzue, helburuak ezagutzeko eta bidean egokitzen egiteko.

7 Azter itzazue eta osatu desafio honetako helburuak, beharrezkoa dela uste baduzue.

1. H	Taldean, komunitateko gizarte beharrak aztertzea, bai eta aurreko eta egungo kooperatiba esperientziak, iturri desberdinetako informazioa baliatuz.
2. H	Bakarka, sustatzaile modura, gizarteko aniztasunarekin konprometituta, komunitatearen ongizatean eragingo duten ideiak proposatzea.
3. H	Ideiak planifikatzea, sortzea, zehaztea eta ahoz gora nahiz idatziz aurkeztea.
4. H	Komunak diren eginkizunetan taldean lan egitea, norberak bere erabakiak eta eginbeharrak arduraz betez.

- a)** Taldekide bakoitzak helburu bat aztertuko du bakarka. Adibidez: koordinatzaileak 1. helburua; idazkariak 2. helburua, koordinatzailearen laguntzaileak 3. helburua; eta boze-ramaileak 4. helburua.
- b)** Norberak desafioko ezaugarriak (aurreko jarduerakoak) helburuekin lotuko ditu.
- c)** Adituen taldean bilduko dira, hau da, koordinatzaile guztiak elkarrekin, idazkariak... Norberak egindako hausnarketa besteekin partekatu eta helburuari loturiko azterketa osatuko dute.
- d)** Aditu talde bakoitzak helburuari loturiko azterketa gela osoaren aurrean aurkeztuko du. Adostutakoak koadernoan bilduko dira.

Kooperatiboki aritzeko taldeak ere bere helburu eta balio komunak izan behar ditu. Beraz, horiek zein diren adostuko duzue elkarrekin.



8 Taldeko helburuak zehazteko lagungarri dituzue ondoko helburu posibleen zerrenda.

- a)** Lehenik norberak hausnar dezala zein diren ezinbesteko helburu garrantzitsuak kooperatiboki aritzeko.
- b)** Ondoren, banaka norberak bere hausnarketa azaldu.
- c)** Gero adostu elkarrekin.
- d)** Eta azkenik, jaso idatziz.

TALDEKO HELBURUAK AUKERAN		
JARRERA	FUNTZIONAMENDUA	BIZIKIDETZA
1. Arreta jartzea, gutxiago distraitea. 2. Lanean ahalegin handia-goia egitea. 3. Lanerako jarrera baikorra izatea. 4. Taldeko lan-giroa hobetzea. 5. Bakoitzak bere iritzia emateko baldintzak sortzea. 6. Hizkuntzarekin arazoak izan ditzakeen ikaskideei laguntzea	7. Denbora aprobetxatzea, alferrik ez galtzea. 8. Ahots-tonua zaintzea. 9. Proposatutako prozedurak entzun eta betetzea. 10. Taldean zentratzea, beste taldeei begira egon gabe. 11. Modu koordinatuagoan lan egitea. 12. Talde moduan funtzionatzea. 13. Taldeko kide guztiek parte hartzea.	14. Elkar errespetatzea. 15. Elkarri entzutea. 16. Taldekideen arteko komunikazioa areagotzea/hobetzea. 17. Taldekideen arteko harremanak sendotzea. 18. Taldekide bakoitzaren erritmoa errespetatzea.

- 9** Taldeko kide bakoitzak ondorengo taulatik bi helburu hautatuko du. Helburu horiek lortzeko zer egingo duen idatziko du. Taldeko erantzunak koadernoan jasoko dira. Eta horiek taldeko helburuak izango dira.

NORBERA IZATEN JAKIN	ELKAREKIN BIZITZEN JAKIN
1. Nire aportazioak garrantzitsuak direla jakin. 2. Gutxiago hitz egin, eta orohar, gutxiago distraitu. 3. Harremanetako emozioak autoerregulatu. 4. Jarrera baikorra izan, alderdi baikorrei begiratu. 5. Eginkizunetan eta erabakietan parte hartu.	6. Taldean giro ona sortu. 7. Taldean erabaki eta adostutakoak bete. 8. Taldeko kideak berdin tratatu. 9. Errespetuz eta aktiboki entzun eta horiek kontuan izan. 10. Norberak bere iritzia adierazi, inor mindu gabe. 11. Elkarriketetan errespetuz hitz egin.
PENTSATZEN ETA IKASTEN JAKIN	EGITEN ETA EKITEN JAKIN
12. Landutako gaiekiko jakinmina agertu. 13. Hitz egin aurretik pentsatu. 14. Besteen ideiak errespetuz eztabaidatu. 15. Gai berrien aurrean jarrera irekia izan. 16. Iraunkortasuna, erraz ez etsi. 17. Aldaketetara egokitu.	18. Ideia berriak proposatu. 19. Ideia egingarriak proposatu. 20. Norberak bere onena eman. 21. Hobekuntza proposamenak irekitasunez asumitu. 22. Hobekuntza proposamenak aurrera eraman.
KOMUNIKATZEN JAKIN	
23. Norberak bere ideiak defendatu, haserretu gabe. 24. Elkarriketetan, besteei errespetu eta modu egokian hit egin. 25. Taldeko kideen keinu eta gorputz adierazpena kontuan izan.	

3. OSAGAIA

Ekimenez ideia eta logotipoa sortzen

» HAUTSAK HARROTZEN

Ikasle-kooperatiba sortzea ez da lan makala. Ardura handikoa da eta ekimen handia eskatzen du. Baina zer da ekimenez aritzea? Ekintzaile izatea?

EKINTZAILETZA

1 Ekintzailletza zer den arakatzeko jarraitu ondoko pausoak:

- Gela bitan banatuko duzue.
- Talde batek ezaugarriak izango ditu eskura, eta beste taldeak instrukzioak. Horretarako inprimatu egin beharko dituzue.
- Ezaugarriak eta instrukzioak banatuko dituzue taldeko kideen artean, banaka ala binaka bat hartuta.
- Elkarrekin hitz eginez loturak osatuko dituzue: ezaugarri bat instrukzio bat.
- Azkenik, osatu azpiko taula elkarrekin.

EZAUGARRIAK

Erabili zure irudimena eta bete beharreko beharrak eta erronkak identifikatzeko gaitasunak.

Egon zentratuta, ez etsi eta zehaztasunez egin aurrera presioaren, zorigaitzaren eta aldi baterako porrotaren aurrean.

Arduraz jokatu eta ideiak xede-komunitatean, merkatuan, gizartean eta ingurumenean dituzten ondorioak eta eragina ebaluatu.

Idea sortzaileak eta helburuzkoak garatu ikuspegi berritzaileekin.

Sinestu zeure buruan, jarraitu garatzen eta identifikatu eta baloratu zure bakarkako nahiz taldeko indarrak eta ahulguneak.

Bildu eta kudeatu behar dituzun baliabideak eta ideiak ekintza bihurtzeko kudeatu behar diren baliabide material, ez-material eta digitalak.

Joan zaitez eta hartu erronkak.

Taldean, sarean eta kooperazioan elkarlanean aritu ideiak garatzeko eta ekintza burutzeko.

Erabakiaren emaitza ziurgabea denean, eskuragarri dagoen informazioa partziala edo anbigua denean, edo nahi ez diren emaitzak izateko arriskua dagoenean.

INSTRUKZIOAK

SORMENA

AUTOKONTZIENTZIA ETA
AUTOERAGINKORTASUNA

PENTSAMENDU ETIKO
ETA IRAUNKORRA

MOTIBAZIOA ETA
IRAKORTASUNA

AUKERA
ERREKONozITZEA

BALIABIDEAK
MOBILIZATZEA

EKIMENA
HARTZEA

BESTEekin LAN EGIN

ANBIGUOTASUNARI,
ZIURGABETASUNARI ETA
ARRISKUARI AURRE EGIN

TALDEA	EZAUGARRIAK	INSTRUKZIOAK
IDEIAK ETA AUKERAK	Aukerak errekonozitzea	Erabili zure irudimena eta gaitasunak bete beharreko beharrak eta erronkak identifikatzeko
BALIABIDEAK		
EKINTZA		



- 2 Richard Turere-n bideoa ikusiko duzue kooperatibako taldeetan jarrita. Eta aurreko taulako ezaugarriak betetzen dituen aztertuko duzue. Talde bakoitzak bi ezaugarri aztertu eta justifikatuko ditu. Ondoren, bozeramaileak gela osoaren aurrean aurkeztuko du taldeak egindakoa.

▶ https://www.ted.com/talks/richard_turere_my_invention_that_made_peace_with_lions?subtitle=es



» GOAZEN HARIRA

Ekintzailatza zer den ezagutu ondoren, kooperazioari dagokion antolaketa lanetan hasiko zarete. Komunitateko ongizatean laguntzeko elkarren indarrak baliatuz zein zerbitzu eskain zenezaketen aztertuko duzue.

IDEIA

- 3 Brainstorming-a edo ideien zaparrada egingo duzue komunitatean eta gure artean dauden premiak identifikatzeko. Beharrezkoa izango duzue zuen jarrera ahalik eta irekiena izatea.

- Koordinatzaileak azalduko ditu dinamikako adibideak.
- Idazkariak ideiak idatziz jasoko ditu diagrama digitalean.
- Gero eta ideia gehiago hobe.
- Izan baikorrak. Ezin dira ideiak gutxietsi edo baztertu.
- Izan parte hartzaile: taldeko guztiek duzue hitza.
- Izan habilak: ideia beraren gainean ez pasa denbora gehiegi. Ikuspegi desberdinetatik begiratu atal bakoitza.
- Batu eta nahastu aurreko ideiak berriak sortzeko.



Zuen ideiez gain, herriko ala hiriko zerbitzuak (anbulategia, udaltzaingoa, udala, suhiltzaileak, gurutze gorria, kale garbitzaileak...) bisita zenitzakete eta premiarik duten aztertu. Hauek ere zerrendan gehituko dituzue.

Kooperazio proiektuak honakoak izan daitezke:

1. Besteei zerbait erakusteko.
2. Zailtasunak dituztenei laguntzeko.
3. Hirugarren adinekoei laguntzeko.
4. Herri ala hiriarentzako kultur ekintzak antolatzeko.
5. Kultur ondarea zaintzeko.
6. Auzolanerako.
7. Arrisku-prebentzioa eta osasuna sustatzeko.
8. Komunikabideen bidez, herri ala hiritarrak sentsibilizatzeko.

Iturria: Centre Promotor d'Aprenentatge Servei (2010), Ekin I+Zri!
Ikasi eta zerbitzatzeari buruzko gida praktikoa gazteentzat, Zerbikas Fundazioa, pp. 10-13.
http://www.zerbikas.eus/wp-content/uploads/2016/01/Guia_APS_euskera.pdf

Zein gizarte premia du? Eta zein da hartzailea?	Zer eskain genezake?	Zer ikas genezake?

- 3** Aurreko ideietatik egingarrienak direnak hautatu eta horiekin osatu ondoko taula, elkarrekin adostuz. Horretarako pentsamendu dsberdinak erabiliko dituzue.

A/ Pentsamendu ameslaria (Zer)

- Dudak agerian uzten dituzten ideiak argituko dira.
- Errepikakorrak direnak ezabatuko dira.
- Txandaka, norberak ideia bat hautatuko du.
- Koordinatzaileak irakurriko ditu ideia guztiak. Eta ideia berririk sortzen ote den galdetuko du.
- Interesa, garrantzia, eraginkortasuna, bideragarritasuna eta ikasiko denaren arabera sailkatuko dira.
- Elkarrekin, bi ideia hautatuko dira.

B/ Pentsamendu errealista (Nola)


- Une honetan, ideiak nola zehaztu pentsatzen hasiko zarete. Lagungari izango zaizkizue ondoko galderak: Nola gauzatu genezake ideia errealitatean? Zein ekintza burutu beharko genituzke horretarako? Zenbat denbora behar dugu garatzeko?
- Koordinatzaileak egingo ditu galderak. Ideia bakoitzeko galdera guztiak erantzungo dira.
- Emandako erantzunekin ondorioak jasoko dira.

C/ Pentsamendu kritikoa (Zertarako)

- Atal honetan, ideien ahuleziak topatu behar dituzue indartzeko. Galdera hauek lagunduko dizute: Zein ahulgune du ideia honek? Zerbait ahaztuta utzi al dugu? Zerk ez digu ideia garatzen uzten? Zein ahultasun du gure planak?
- Ahuleziei irtenbide bat bilatzen saiatuko zarete. Eta azkenik, ahultasun gutxien dituen ideia hautatuko duzue.

Idea pentsatu ondoren, gauzatzen hasteko informazioa zehaztu behar da. Zuen eskola-kooperatibaren nondik norakoak zehazten.

5 Ondoko irudiko atalak kontuan izanda osatu bakoitzari dagokion informazioa.



HARTZAILEAK	
PROPOSATUTAKO IDEIA	
HARTZAILEEKIKO HARREMANA	
INFORMAZIO KANALAK	
DIRU SARREREN ITURRIAK	
FUNTSEZKO JARDUERAK	
FUNTSEZKO BALIABIDEAK	
ELKARLANA	
KOSTUAK	

Taldean egin duzuen proposamena egokia den jakiteko ikus ezazue desafioan eskatzen denarekin eta helburuekin bat datorren.

6 Talde bakoitzak bere kooperatiba proposamena gelaren aurrean aurkeztuko du. Talde bakoitzak aurkezpen bakoitzeko ondoko errubrikaren bidez balorazioa egingo du eta aurkeztu duen taldeari helaraziko dio. Jasotako emaitzekin proposamena zein den erabakiko du.

Ebaluazio-irizpideak	1	2	3	4
Gaiak sortzen duen interesa	Ez da interesgarria komunitatearentzat eta ikasleentzat.	Agian hartzailearentzat interesgarria da, baina taldearentzat ez da oso motibagarria.	Originala ez den arren, ideia ona da.	Oso ideia ona da. Aberasgarria hartzaileentzat eta interesgarria taldearentzat.
Eraginkortasuna	Ideiak ez dio zehaztutako gizarte premiari erantzuten.	Ideia egokia den arren, agian ez dio behar bezala zehaztutako gizarte premiari erantzuten.	Ideia zehaztutako gizarte premiaren inguruan hausnartzeko egokia izan daiteke, eta maila txikian bada ere, premiari aurre egin lagun dakioko.	Ideia eraginkorra izan daiteke zehaztutako gizarte premiari erantzun bat emateko.
Bideragarritasuna	Ideia ez da oso zehatza eta ez da errealia.	Ideia ona den arren, zaila da burutzea; ditugun baliabideak baina gehiago behar dira.	Ideiabideragarri izan dadin hainbat aldaketa eta egokitzapen egin behar dira.	Ideia zehatza da, neurgarria, errealista, eta premiari erantzuteko baliagarria.
Komunitateari eta ikalegoari onura	Ez da onurarik eskaintzen, ez komunitateari ez eta ikaslegoari ere.	Ziurrenik ez du onura handirik eskainiko, ez komunitateari eta ez ikaslegoari ere.	Ideiak hartzaileari onura txiki bat eskaintzen dio, nahiz eta ikaslegoak gutxi ikasiko duen.	Ikaslegoaz gain komunitate osoa baliatuko da ideiak eskaintzen dituen onurez.

Gizartean eskainiko duzuten ideia zein den aztertu eta erabaki duzue. Beraz, has zaitezte ikasle-kooperatiba sortzeko lehen urratsak ematen. Ezin zarete gizarteratu inolako marka eta logotiporik gabe, ezta? Ekin zuen eskaintzari dagokion logoa sortzen!!

KORPORAZIO IRUDIA. LOGOTIPOA.

7 Topatu online hainbat kooperatiben irudiak eta aztertu elkarrekin: esanahia, itxura, kolorea... eta zuen iritzia.

8 Sortu zuen logotipoa. Horretarako...

a) Bildu zuen ikasle-kooperatibako informazioa:

- Izena
- Eskainitako produktua edo zerbitzua
- Norentzat da produktua/zerbitzua?
- Helarazi beharreko irudia (seriotasuna, berrikuntza, energia, konfiantza).

b) Prestatu zirriborro sorta bat burura datozen ideiekin. Zenbat eta gehiago hobe. Hautatu taldean hiru-bost proposamen.

c) Lehenengo zuri-beltzean lan egin, koloreak kontuan hartu gabe.

d) Argi daukazuenean, hainbat proposamen prestatu kolore desberdinak erabiliz, forma eta letraren tipografia.

e) Elkarrekin adostuz, hautatu proposamen onena.



Logotipoak sortzeko lagungarri izango zaizkizue ondoko aplikazioak:

- Hellos point
- Illustrator
- The gimp
- Corel draw
- Paint

► <http://www.inventosnuevos.com/crear-logos-gratis>

► <https://logotipogratis.com>

Hala ere, kontuan izan ikasle zaretenez web orri hauek ongi daudela praktikatzeko eta proiektu hau aurrera ateratzeko. Baina lan horretan diseinatzaile profesionalak aritzen dira eta lan duin bat egiteko beren laguntza beharrezkoa izaten da.

4. OSAGAIA

Ikasle-kooperatibaren eraikuntza

» HAUTSAK HARROTZEN

Zuen ideiak aurrera egiteko ikasle-kooperatiba seriotasunez eraikitzeko unea iritsi zaizue. Kooperatiba eraikitzeko taldea eta logoa sortuta duzue, baina bes-telako egitekoei heldu behar diezue: bazkideen zerrenda, arautegia eta haren erregistroa.

ESTATUTUAK

Ikasle-kooperatibak arautegi baten beharra du eta hauek estatutuetan biltzen dira; idatziz bil-tzea garrantzitsua da denontzat ikusgai egon daitezen. Arautegi honek kooperatibaren helburua lortzen lagunduko du, bai eta bertako bazkideen parte hartzea ere.

- 1 Nor zarete ikasle-kooperatibako bazkideak?
- 2 Arauak behar direla uste al duzu? Zertarako? Zein arau uste duzue jaso behar direla? Eta arau hauek zeren baitan antolatuko zenituzkete? Partekatu zuen ideiak.



» GOAZEN HARIRA

Ikus *Material ikusgarrian* ematen zaizun estatutuen adibidea. Hura lagungarri ez bazaizu, hemen beste adibide bat:

1. Artikulua. Izena

DBH-TXOKO: Elorrioko Txintxirri Ikastolako DBHko ikasleen txokoa.

2. Artikulua Helburua

Kooperatibaren helburua DBHko ikasleentzako txokoa kudeatzea da, elkarrekin egoteko gune goxo bat izan dadin.

Helburuak:

- Askatasuna
- Laguntasuna
- Harremana
- Segurtasuna
- Konfiantza

Helburuak lortzeko zer eskainiko dute bazkideek?

- Errespetoa
- Laguntasuna
- Sen ona
- Parte hartzea
- Jarrera egokia
- Arauak betetzea
- Ardurak izatea

Ikastolarako onurak:

- Ikasleen asebetetzea
- Txikiekiko arriskuak ekiditea
- Taldean asetzen duen zerbait egitea
- Ikasleen arteko jarrera hobetzea
- Jolasgaraietan giro paketsua

3. Artikulua Bazkideak

Kooperatiba honetako bazkideak Ikastolako DBHko ikasle guztiak dira.

4. Artikulua Bazkideen eskubideak

- Jolasgaraietan eta bazkalostean guneaz gozatzea.
- Denen parte ahrtzea eta iritzia errespetatzea.
- Musika jartzea.
- Jateko eskubidea garbitasun arauak betetzen badira.



- Berdintasun baldintzen baitako trataera izatea.
- Gelako apainketaren inguruko proposamenak egitea.
- Ordezkariek hautatzea.

5. Artikulua Bazkideen betebeharrak

- Ordezkarien aukeraketa
- Gelako garbiketaren ardura
- Oihurik ez
- Errespetuzko gune bat sortu, indarkeriarik gabea
- Baloiarekin, patinetearekin... ez ibili
- Materiala eta pertsonak errespetatu
- Berekoia ez izan
- Aurrea antolatutako eginkizunetan parte hartu
- Gelako erabilera egokia bermatu

6. Artikulua Bazkideen faltak

- Guneko arduradunek faltak kudeatuko dituzte eta talde osoaren adostasunarekin hartuko dituzte erabakiak.
- Zerbait hautsiz gero, astebeteko epean berrituko da.
- Garbitasun falta bat egiten bada, astebetez garbitzeko zigorra ezarriko zaio.
- Beste faltaren bat egiten bada, proiektuko arduradunarekin hitz egingo da hartu beharreko erabakia hartzeko. Arazoa konpontzen ez bada, Ikastolako Bizikidetza batzordean aurkeztuko da; eta guneak hartutako erabakia betetko du.
- Arduradunek proiektuko arduradunari adieraziko dizkiote faltak.

7. Artikulua Gobernu Organoak, funtzioak.

- Bi Organuz osatuko dira: asanblada (DBHko ikasle guztiak) eta arduradunak (DBHko maila bakoitzeko ordezkari bat)
- Hiru hilabetez behin tutoretza orduetan asanblada egingo da eta arduradunek proiektuko arduradunari adierazi beharko diote garaiz.
- Hiruhileko asanbladan ordezkariak hautatuko dira.
- Ondoko informazioa jasoko diren aktak idaztea derrigorrezkoa da: data, parte hartzaileak, landutako gaiak eta hartutako erabakiak. Aktak parte hartzaile guztien sinadura jaso behar du.

2015eko irailaren 28an Zuzendaritzak onartuta.
2015ekko urriaren 1ean Erret-Kontseiluak onartua.

Zuen ikasle-kooperatibako estatutuak gutxienez ondoko hiru atal hauek izango ditu:

- 1. Atala: izena, helburua, iraupena, helbidea.
- 2. Atala: bazkideak, betebeharrak eta eskubideak.
- 3. Atala: ikasle-kooperatibako organoak.

3 Zer dira Gobernu-erakundeak? Irakurri elkarrekin *Material ikusgarrian* daukazuten azalpena eta elkarrekin ulermena partekatuz argitu azalpena elkarrekin: organoak, funtzioak... Behar izanez gero, irakaslea ere laguntzaile izango duzue.

4 Osa ezazue, adibideak baliatuz, zuen ikasle-kooperatibako estatutuak.

5 Arautegia idatziz jaso duzutenean partaide guztiek, bazkideek, sinatu behar duzue, eta elkarrekin erabateko adostasuna lortu behar duzue.

Adostasunetara iristeko atal bakoitza lasaitasunez hausnartu beharko duzue. Hartu denbora eta elkarrekin begirunez hitz egitea ezinbestekoa izango da. Gogoan izan, bestearen ideiak zureak bezain garrantzitsuak izan ditezkeela, hori dela eta, modu zabalean entzutea, bestearena jasotzea eta norberak berea errespetuz adieraztea ezinbestekoa izango da.

➤ KEZKAK ARGITZEN

6 Estatutuak sinatutakoan, ikasle-kooperatiba behar bezala erregistratzeko **Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluan** ondokoak aurkeztuko dituzue:

- Ikasle-kooperatibako estatutuak
- Logotipoa
- Sortze-agiria
- Ikasle-kooperatiba aurkezten duen eskutitza

<https://www.csce-ekgk.coop/es/>



IKASLE-KOOPERATIBA ERREGISTRATZEKO TXOSTENA

Sortze-agiria

IKASLE-KOOPERATIBA SORTZEKO

ondoko bazkideak elkartu dira:

Izen-abizenak	Sinadura

eta BAIEZTATZEN DUTE:

- Ikasle-kooperatibako bazkide direla.
- Ikasle-kooperatibako estatutuko arauak beteko dituztela.
- Beren funtzio eta betebeharrak beteko dituztela.

Sinadurak

-n, 202 -ko -ren (e)an

ESKUTITZA

Guk, _____ (Ikasle kooperatibako izena) izeneko ikasle-kooperatiba sortu dugu, eta kooperatiba honen helburua _____ da.

Elkarrekin aurrera eraman nahi dugun jarduera burutzeko...

Erregistroa bermatuta duzuela jakingo duzue erantzuna jasotzen duzutenean. Une horretan enpresa sortua izango duzue eta zuen helburu komunari heltzen has zaitezke.


5. OSAGAIA

Ekoizpenaren kudeaketa eta etekina

» HAUTSAK HARROTZEN

Taldea eratuta duzue, arauak adostasunez sinatuta, eta jarduerari ekiteko kooperatiboki lan egiteko unea iritsi da.

Ikus itzazue zein diren ikasle-kooperatibaren urratsak:



1 Lanari ekiteko zuen taldea antolatu behar duzue. Kooperatibak dituzuen zereginak zein diren zehaztu eta horiek zein epetan egingo diren.

a) Horretarako komeni zaizue adostea nork zein ardura izango duen. Hainbat ardura iradokitzen zaizkizue:



- Koordinatzailea
- Idazkaria
- Ekonomia arduraduna
- Materiala, baliabideak...
- Informazioa (argazkiak, dokumentuak...)
- Kanpo harremanak: baimenak, elkarreizketak...
- Marketinga (iragarkiak...)
- ...

KOOPERATIBAKO BAZKIDEA	ARDURAK

b) Ondoren, ikasle-kooperatibak hemendik aurrera bete behar dituen zereginak zerrendatuko dituzue ordenan eta horiek zein epetarako egingo diren ere bai. Lagungari da jakitea kooperatibari noiz emango zaion itxiera (ikasturte amaieran), eta horren baitan gainontzekoa antolatzea.

ZEREGINAK	ARDURADUNA	EPEA
1.		
2.		
3.		
4.		

* Plangintza hau prozesuan zehar aurrean izatea ezinbestekoa izango da egin beharreko moldaketak eta egokitzapenak egin ahal izateko, eta zereginak garaiz burutzeko.

» GOAZEN HARIRA


Ekoizpen Planak enpresaren eragiketak deskribatu nahi ditu, hau da, produktua fabrikatzeko edo zerbitzua emateko prozesua, baita giza, material eta eragiketa horien funtzionamendurako beharrezkoak diren teknologikoak.

Ekoizpen Plan honetan zehaztu beharko dugu:

- Produktuak fabrikatu edo zerbitzuak garatuko ditugun kokapena eta instalazioak.
- Ekoiztu beharko ditugun ekipoen definizioa (makineria, garraioa, altzariak).
- Ekoizpen-prozesuaren fase ezberdinen deskribapena.
- Lehengaien eta bestelako horniduraren beharrak zehaztea, hornitzaileak bilatzea eta prezioen negoziazioa.

2 Zuen jarduera burutuko duzuen tokia definituko duzue. Non burutuko duzue ekoizpena?

- a)
- b)
- c)
- d)



* Material horietako batzuk erosi behar badituzue gastu bezala jaso beharko duzue idatziz.


3 Aurrekoa osatzeko hemen beste hainbat galdera taldean adosteko:

- a)
- b)
- c)
- d)
- e)
- f)
- g)
- h)
- i)
- j)
- k)
- l)



Galderak erantzun ondoren plangintza bat egiten saiatuko zara zentroko instalazioak edo behar dituzuen beste edozein erabiltzeko ordutegiekin eta horien kostuarekin, hala badagokio.

- 4** Interesgarria izango litzateke zuen produktu edo zerbitzua-ren prototipo bat egitea. Horri esker, zure produktua fabrikatu edo zure zerbitzua prestatu ahal izateko zure ekipamendu eta hornikuntza-beharrak zeintzuk izango diren jakiten lagunduko dizu.



Prototipoa egin ondoren, zer tresna edo material erabili ditugu?

Informazio guzti honekin produkzio prozesua zehazten joan zaitezke!!!

Ikus ezazue atal honen amaieran Xaboia egiteko ekoizpen prozesua eta hori adibide modura hartuta, sor ezazue zuen plan osoa.

» KEZKAK ARGITZEN

Prozesua aurrera eraman ahal izateko eta eskaintzen duzuen sortzeko ziurrenik baliabide ekonomikoa beharko duzue. Ba al dakizu gizartean zuenak bezalako proiektuak aurrera ateratzeko laguntzak lor daitezkeela? Ezagut itzazue laguntza eskuratzeko aukerak!

(Izena) IKASLE-KOOPERATIBAK,	
(helbidea) duenak, zuengan	
zuzentzen da, komunitaterako, gizarterako eta ikasleen gaitasun anitzen garapenerako onurak eskaintzen dituen	jarduera abian jartzeko asmoz,
ESKATZERA	
jarduera abian jartzeko beharrezkoa dugun finantzaketarako nitaterako, gizarterako eta ikasleen gaitasun anitzen garapenerako onurak eskaintzen dituen	(diru kopurua) eskatzera, kon-
tuan izanda eskainiko dugunak ez digula onura ekonomikorik ekarriko kooperatibako bazkideei, izan ere, lorpenak	erakundean emateko xedea dugu.

- 5** Zuen jarduerarako dirurik behar al duzue? Diru hori nork, non eta nola jasoko den erabaki beharko duzue. Bai eta nola erabili ere.

- 6** Zuen inguruan zein izan daitezke dirua lortzeko bideak? Eskuratu informazioa, galdetu, jo ezazue instituzioetara, banketxeetara...

Nola agertuko duzue zuen burua dirua eskatzeko?

Gogoan izan, erakunde, banketxe... batetara joan behar baduzue diru-laguntza eske, beharrezkoa izango duzuela zuen eskaria idatziz jasotzea. Horretarako lagungarri izango duzue ondorengo txantiloia eredu:


- 7** Aurreko txantiloia edo antzeko batean egin ezazue idatzia, sinatu, jar ezazue zuen enpresako logotipoa, korporazio marka eta bidal iezaiozue dagokionari.

Horretaz gain, telefonoz deitzea ere lagungarri egingo zaizue erantzunak ahalik eta azkarren lortzeko eta komunikazioa ematen dela bermatzeko.

8 Zuen jarduerak etekinak ere emango ditu. Etekinak modu desberdinetakoak izan daitezke, dirutan, zerbitzu batean, produktu batean... Zein da zuen zerbitzua? Eta zein etekin jasotzen da horretan?

Erabaki ezazue elkarrekin, ekonomia sozialaren sena kontuan izanda, zer egingo duzuen etekinekin, nori zuzendu, zertan erabili...

Erabaki hau hartzeko komunitatean zeuden beharrak aztertu zenituzten. Behar horiek ase daitezke ematen duzuen zerbitzu ala produktuen bidez, eta baita etekin bidez ere.



ARTISAU XABOIAREN FABRIKAZIO PROZESUAREN ADIBIDEA

Ekipamendua

- Mikrouhin labea
- Labana
- Guraizeak

Oinarrizko materialak:

- Glizerina oinarriko xaboia
- Ezinbesteko olioak
- Moldeak
- Egurrezko paletak
- Isopropil alkohola spray
- Mikrouhinerako ontzia
- Biltzeko materiala

PROZESUAREN URRATSAK:

1. Materiala

- Material bakoitzaren hornitzaileak bilatu
- Prezioak konparatu
- Material bakoitzaren beharrezko kantitatea kalkulatu ekoizpenaren arabera kalkulatu
- Erosi


2. Xaboia prestatu



- Xaboiaren oinarria zati txikiagotan moztu (labana eta mozteko gainazala behar dira).
- Jarri mikrouhinetarako egokia den ontzi batean (mikrouhin labea behar da).
- Berotu xaboiaren oinarria 30 segundoz mikrouhin labean.
- Nahastu oinarria egurrezko paletekin eta berotu berriro mikrouhinean segundo batzuk gehiago xaboia guztiz urtu arte.
- Gehitu olio esentzialak eta jarraitu nahasten koherentzia homogenea lortu arte (probak egin behar dira zein olio esentzial aukeratu ikusteko).
- Moldeak alkohol isopropilarekin bustitzea burbuilak saihesteko.
- Bete moldeak urtutako nahasketarekin eta utzi ordu batzuetan atsedean hartzen, xaboiak hoztu arte.
- Kendu xaboiak moldeetatik.

3. Enbalajea eta ontziratzea

- Kutxak prestatu eta salmenta puntuetara eraman
- Ekoizpen prozesuan adostu beharko da:
 - Zer pertsona arduratuko den zeregin bakoitzaz edo dena kooperatibako pertsona guztien artean egingo den.
 - Zer ordutegi dauden zentroko instalazioetan lan egiteko. Honek lan talde desberdinak antolatzen lagun diezaguke, denboraren erabilgarritasunaren arabera.
 - Zein salmenta-zerbitzu behar diren (bezeroentzako arreta, iradokizun-buletina, produktu edo zerbitzuei buruzko informazioa, etab.) eta nola antolatzen garen zerbitzu horiek emateko.
 - Zer ekoizpen-gaitasun daukagu lan ordu bakoitzeko. Horrela jakingo dugu zenbat denbora behar dugun gure ekoizpen-helburuak lortzeko gure Marketing Planean egingo ditugun salmenta-aurreikuspenen arabera.
 - Kostu finkoak (fabrikatu ala ez ordaindu behar ditugu) eta kostu aldakorrak (ekoizten dugun kantitateari dagozkionak, zenbat eta gehiago ekoitzi, orduan eta material gehiago behar dugu). Gure adibidean, mikrouhinetarako moldeak, paletak eta ontziak kostu finkoak dira. Eta oinarrizko xaboia, olio esentzialak, alkohol isopropilikoa eta ontziratzekeo papera kostu aldakorrak dira.



4. Materiala eta kostua

SALMENTA AURREGARRIA: 500 xaboi

Zein material behar ditugu 500 xaboi ekoizteko?

- 50 kg. glizerina oinarriko xaboiaren - Prezioa 5 euro kg bakoitzeko. = 250 euro
- 10 xaboitarako 5 molde - Prezioa 2 euro molde bakoitzeko = 10 euro
- Egurrezko 20 paleta - Prezioa 1,64 lote 10 unitateko = 3,28 euro

- 50 ml. Usain ezberdinetako olio esentzialak - Prezioa 5 euro 10 ml. = 25 euro
- 2 litro isopropil alkohol - Prezioa 11 euro litroko = 22 euro
- Mikrouhinetarako 5 ontzi - Prezioa 3 euro neurgailu baten = 15 euro
- 25 metro Kraft paper ontziratzeke - Prezioa 15 euro 25 metroko rolo baten = 15 euro
- Enbalatzeko 50 metroko jute-soka - Prezioa 2 euro 50 metroko. = 2 euro

GUZTIRA materialak = 333,28 euro 500 xaboi ekoizteko Material unitarioa

KOSTUA = 0,67 euro xaboi bakoitzeko.

Zenbat denbora behar dugu 500 xaboi ekoizteko?

Ordubetea 50 xaboi egiten baditugu...

10 ordu lan egin beharko dugu 500 xaboi egiteko.

5. Baliabideak: instalazioak, giza-baliabidea eta produkzioarako denbora

Zentroan zein instalazio behar ditugu 500 xaboi ekoizteko?

Mikrouhin-labea eta xaboiak hozten uzteko apala duen tailerra beharko dugu. Egunero ordubete egindago dugu lan xaboiari hozteko denbora emateko.

Zenbat pertsona behar ditugu 500 xaboi ekoizteko eta saltzeko?

Xaboiak egiteko 3 laguneko taldea. Orduko 50 xaboi ekoizteko dira.

3 laguneko taldea xaboiak ontziratzeke. Orduko 50 xaboi ontziratuko dira.

3 laguneko taldea marketina (5 ordu), banaketa (2 ordu) eta salmenta (10 ordu).



6. OSAGAIA

Produkzioaren zabalkundea eta itxiera

» HAUTSAK HARROTZEN

Aurreko osagaian egindako kudeaketa kontuan izanda, ekoitziko duzuen sortzen, eraikitzen hasi behar duzue. Eskuak, burua, bihotza... lanean jartzeko unea iritsi da!



1 Has zaitezte zuen kooperatibako produkzioa antolatzen.

- Antolatu lan ordutegia plangintza taulan
- Eskuratu materiala
- Antolatu zuen artean lan ardurak
- Lana burutuko den gunea zehaztu eta prestatu
- Bestelakoak behar badituzue ere lor itzazue garaiz.
- Laguntza behar baduzue eskatu

PRODUKZIORAKO LAN ORDUTEGIA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
LAN GUNEA(K)					

AURREZ ESKURATU BEHARREKO MATERIALA eta BALIABIDEAK

--

IZENA

LAN ARDURAK / ZEREGINAK

2 PRODUKZIO LANA burutzeko metodologia. Nola lan egingo du ikasle-kooperatibak? Erantzun galdera erabiliko duzuen lan metodologia azalduz.

3 Produkzio lana egiten ari zareten bitartean, etengabe, sortzen edo eraikitzen ari zareten produktu nahiz zerbitzu hori balioesten arituko zarete. Eta behar izanez gero, hobekuntzak proposatzen, zailtasunak gainditzeko, laguntza eskatzen...

Horretarako, lagungarri izango zaizue, produkzio lana egiten ari zaretela hainbat egun zehaztea zuen egutegian, balioespena egiteko. Eta ondoko galderak edo antzekoak beharko dituzue horretarako:

	BAI	EZ	NOLA DAKIT
Sortzen ari garen produktuak ala zerbitzuak ikasle-kooperatibako helburuari erantzuten al dio?			
Hartzailearen beharra kontutan hartzen al du? Asebeteko al du?			
Sortzen ari garen produktua ala zerbitzua kalitatezkoa al da?			
Plangintzaren arabera garaiz al gabiltza?			
Hobetzekorik badugu?			Zer edo zertan hobetuko dugu? Horretarako, zer behar dugu?

Galdera hauekin ala antzekoekin **galdetegiak sortzeko aplikazioak erabil ditzakezue eta emailtzak grafiko modura ikusi aldiro**. Modu honetara, ikus ahal izango duzue balioespen batetik bestera hobekuntzak egiten dituzuen.

» GOAZEN HARIRA



Zuen antolaketa lanari esker eta jarri duzuen motibazio eta interesari esker aurrera zoazte. Une honetan hartzaileak ere motibazio eta interes hori sentitu behar du eskaintzen den horrekiko interesa senti dezan.

Sustatzaileak / saltzaileak izango zarete. Nola saldu/eskaini kooperatibako produktua?

4 Zuen produktua saltzeko hartzaileak produktu **horren** premia sentitu behar du. Pentsa al dezakezue zein egoeretan, unetan... senti dezakeen hartzaileak zuen eskaintzarekiko premia?

a) Azaldu hainbat adibide errealak izan daitezkeenak. Gero eta adibide gehiago izan zuen salmenta/eskaintza iragarkia hobe izango da.

PRODUKTUAREN PREMIA ADIBIDEAK:

•
•

b) Adibide guztien artean hautatu hartzailearen-gandik gertuenak eta errealeak direnak.

5 Iragarkia ala aurkezpena prestatzeko aurretikoak:

a) Nola adieraziko diozue hartzaileari izan dezakeen premia aurreko adibidea(k) erabilita?

- Horma-irudia
- Audioa
- Bideoa
- ...

b) Sortuko duzuen iragarkia ala aurkezpena nola zabalduko duzue? Kontuan izan, aurretik hautatu duzuen aukerak eragiten duela komunikazio bidean, eta zuentzat egingarri izatea ere ezinbestekoa dela, indar gehiegi xahutu ez dezazuen.

6 Iragarkia ala aurkezpena prestatzen has zaitezke-te. Gerta dakizueke, produkzioarako denbora hau ere behar izatea; hala bada, taldekoak banatu beharko zarete: batzuk produkzioan eta besteak iragarkiaren ala aurkezpenaren prestakuntzan aritzeko.



Iragarkia prestatzeko, aurrez bildu behar duzuten materiala, baliabideak. Egin zirriborroa, gidoia... eta horren gainean elkarrekin lan egin ondoren, sortu iragarkia.

7 Aurretik erabakitako komunikabidearen arabera, sortutako iragarkia ala aurkezpena zabalduko duzue.


Jasotako erantzunaren arabera, produktu ala zerbitzuaren zabalkundeari ekingo diozue, zuen eskaintzak dituen ezaugarrien arabera izango da zabaltze hau ere.

Zorte on zuen eskaintzaren zabalkundan!!!
Denontzat aberasgarri izan dadila!!!

» KEZKAK ARGITZEN

8 Zabalkunde horretan jasotako etekinak, baldin eta etekin materialak badaude, jaso eta erabakitako moduan eskaini ezazue.

•
•
•



Irakasleak, heldu bezala, lagun diezazueke etekinen trasferentzia burutzen.

Zorionak egindako lan mardulagatik!!!

9 Desafioan eskatutako amaitu duzuenek, ikasle-kooperatiba bakoitzak zuen ekimena eta prozesua balioetsiko duzue elkarrekin.

a) Aurrera eramandako ekimenaren inguruan zer deritzozue? Osatu errubrika taldean.

	1	2	3	4
Aurretik zehaztutako helburua	Aurretik zehaztutako helburua ez da lortu.	Aurretik zehaztutako helburua maila txiki- kian lortu da.	Aurretik zehaztutako helburua ia erabat lortu da.	Aurretik zehaztutako helburua erabat lortu da.
Prozesuan egindako bidea	Prozesuan egindako bidea ez da lagungarria izan.	Prozesuan egindako bideak neurri batean lagundu du.	Prozesuan egindako bideak lagundu du.	Prozesuan egindako bideak izugarri lagundu du.
Taldeko antolakuntza eta ardurak	Taldeko antolakuntza ez da egokia izan eta ardurak ez dira bete.	Taldeko antolakuntza pobre samarra izan da, eta ardurak ere bai.	Taldeko antolakuntza egokia izan da eta arduren banaketa bete da.	Taldeko antolakuntzak erabat erraztu du eta ardurak osoki bete dira.
Hobekuntzetan eta aldaketetan egindako egokitzapenak	Sortu diren eragozpenetan ez da moldatzeko gaitasunik izan.	Sortu diren eragozpenetan moldaketa gutxi batzuk egin dira.	Sortu diren eragozpenetan aldaketak eta egokitzapenak egoki egin dira.	Sortu diren eragozpenetan aldaketak eta egokitzapenak behar bezala egin dira.
Beharrezko material eta baliabideak	Ez dira eskuratu behar ziren material eta baliabideak.	Material eta baliabide gutxi batzuk lortu dira.	Material eta baliabide gehienak lortu dira.	Material eta baliabide guztiak lortu dira.
Gizarte-erakundeekin harremana	Gizarte-erakundeekin harremana ez da inondik inora burutu.	Gizarte-erakundeekin harremana burutzea zaila izan da.	Gizarte-erakundeekin harremana nahiko ongi burutu da.	Gizarte-erakundeekin harremana oso ongi burutu da.
Taldeko esperientzia	Taldeko esperientzia oso zaila eta ezinezkoa izan da.	Taldeko esperientzia zaila izan da, eta desafioaren emaitzetan eragin du.	Taldeko harremanak bere zailtasunak izan arren, desafioaren mesedetan nahiko ongi atera gara aurrera.	Taldeko harremanak zailtasunak izan arren, desafioaren mesedetan oso ongi atera gara aurrera.

b) Proiektuaren hasieran eman zen galdera gidaria kontutan hartuta norberak bakarka gogoeta bat idatziko du egindako prozesu osoaren inguruan, elkarrekin lanean aritzearen inguruan...

Galdera gidaria honako hau zen:

Ekintzaileak izanda, taldean gure indarguneak baliatuz eta kooperazioan arituz, zer eskain dezakegu gizartea hobetzeko?

c) Azkenik, hausnarketarekin bukatzeko, helburuen zure lorpen-maila nolakoa den.

Zer ikasi dut? -Zer eduki edo kontzeptu ikasi ditut? -Zer azpimarratu nahi dut? Zer egin zait esanguratsua, erabilgarria, erakargarria edo harrigarria?	
Zer trebetasun hobetu dut? -Zer trebetasun hobetu dut? -Zertan hobetu behar dut?	
Nola ikasi dut? -Nola ikasi dut?	
Zertarako balio izan dit? -Zertarako balio izan dit? -Zertan erabil dezaket ikasitakoa?	

d) Balioespenari beste zerbait gehitu nahi badiozu...

Lortu duzue! Ez da lan makala izan! Zorionak! Partekatu zuen proiektua ikastolako zuzendaritzan, beste geletan, zuen familia eta lagunei, udale-txean... Garrantzitsua da ongi egindako lanei bere lekua ematea eta zuek dagokizuen errekonozimendua jasotzea. Konfecoop-era ere bidal dezakezu, helduek ikus dezaten gazteek ere ekintzaile izanda zenbat duzuen gizartean emateko. Lan bikaina!!!



10 Ikasle-kooperatiba itxeko unea iritsi da. Erregistratu zenuten bezala, bertan itxiera eman behar diozue. Horretarako...

a) Osatu itxiera dokumentua elkarrekin eta itxiera eskutitza eta bidal itzazue Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilura.

► <https://www.csce-ekgk.coop/es/>



IKASLE-KOOPERATIBAREN ITXIERA

ITXIERA-AGIRIA

teko ondoko bazkideak elkartu dira:

IKASLE-KOOPERATIBARI ITXIERA ema-

Izen-abizenak	Sinadura

eta BAIEZTATZEN DUTE:

- Ikasle-kooperatibako bazkide direla.
- Ikasle-kooperatibako estatutuko arauak bete dituztela.
- Beren funtzio eta betebeharrak bete dituztela.
- Eta ikasle-kooperatibako helburuak bete direnez, **kooperatibari behin betiko itxiera eman nahi diotela.**

Sinadurak

-n, 202 -ko

-ren (e)an

ESKUTITZA

Guk, (Ikasle-kooperatibako izena) izeneko ikasle-kooperatibako bazkideek,
eta kooperatiba honen helburua
bete denez,

ESKATZEN DUGU

Gure ikasle-kooperatibaren itxiera burutzea.

- 11** Egindako lanaren ondotik, ospatzeko unea iritsi zaizue. Proiektua amestuz hasi ginen eta ametsekin jarraituko dugu, mundua ameslariak hobetzen baitute.

Gozatu elkarrekin zuen arrakasta, gizarteari eskaini diozuten aberastasuna eta zuen ekintzai-letasun sena. Hona hemen elkarren poza partekatzeko eta ospatzeko En tol sarmiento taldearen Ametsetan abestia:

<https://www.youtube.com/watch?v=LtDx3hb-KwI>



Baxter txiki bateko sustraiak,
erosotasunaren etsaiak
Milaka kilometro amets berri baten bila
Hartu zure lekua, berezion munduan
Iragana uzteko albo batera
Iñurrien antzera pauso txikiz aurrera, amestera
Ametsetan, ametsetan hamaika urte pasa dira
Ametsetan, ametsetan galdu genuen beldurra
Ametsetan, ametsetan zure mundutik gurera
Ametsetan, ametsetan ilargirako bidean
Bizitzeko garaia orain da
Arnasteko unea iritsi da
Baldakizu zein den zure ametsik sakonena?
Hartu zure lekua, berezion munduan
Iragana uzteko albo batera
Iñurrien antzera pauso txikiz aurrera, amestera
Ametsetan, ametsetan hamaika urte pasa dira



Ametsetan, ametsetan galdu genuen beldurra
Ametsetan, ametsetan zure mundutik gurera
Ametsetan, ametsetan ilargirako bidean
Ametsetan, ametsetan, hamaika urte pasa dira
Ametsetan, ametsetan, ametsetan
Ametsetan, ametsetan zure mundutik gurera
Ametsetan, ametsetan, ametsetan
Ametsetan, ametsetan hamaika urte pasa dira
Ametsetan, ametsetan galdu genuen beldurra
Ametsetan, ametsetan zure mundutik gurera
Ametsetan, ametsetan ilargirako bidean
Ametsetan, ametsetan hamaika urte pasa dira
Ametsetan, ametsetan galdu genuen beldurra
Ametsetan, ametsetan zure mundutik gurera
Ametsetan, ametsetan ilargirako bidean
Ilargirako bidean ametsetan